



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



Erakunde Autonomiaduna



Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Luze eta Txiki

1 UNITATE
DIDAKTIKOA


IPUINA
TESTU LUZEA

Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3



Behin bazen Berdinland izeneko lurralde eder bat.

Bertan Luze izeneko neska hankaluze eta
besaluze bat bizi zen.



Sei urte bete zituen gauean, inoiz baino gehi-
ago egin zuen lo. Esnatu zenean bere hankak
eta besoak luzeagoak zituela iruditu zitzaion.


Eta hurrengo egunean ere bai. Eta hurren-
goan. Eta hurrengoan. Eta hurrengoan.






Horrela gelako ikaslerik altuena bilakatu zen.
Hain altua zenez, bere burua beti ikusten zen
lagun guztien gainetik.

Luze askotan makurtu edo eseri egiten zen lagunekin errazago hitz egiteko. Orduan bere hanka edo beso luzeren bat ikusten zen talde-tik ateratzen. Ez zen beharrezkoa non zegoen galdetzea, beti agerian eta begibistan zegoen.



Ez kutaketara jolasten zutenean beti zen ikusi
eta aurkitzen zuten
lehenengoa.





Alderantziz gertatzen zitzaion berriz Txiki mutil txikitxoari. "Non dago Txiki?". "Etorri al da Txiki?" eta antzeko galderak etengabe egiten zituen jendeak.

Lagun guztiak baino txikiagoa zenez, ez zuten lagunen artean ikusten.




Txiki




Bera zen noski, ezkutaketa jolasean ikusi
eta aurkitzen zuten azkena.

Nahiz eta gauero gauero ordu pila bat lo egin, ez zen luzatzen, ez zen handitzen.



Luze eta Txiki lagun onak ziren. Biak bakarrik zeudenean nabariagoa zen euren arteko altura aldea:

- Zer eguraldia egiten du hor goian? -galde-tzen zion Txikik irribarrez.



- Pare bat gradu gehia-go hor behean baino -erantzuten zion Luzek umoretsu.



Kanta edo bertso bat ere asmatu zuten biek.
Elkarrekin kantatzen zuten beti eta beste
lagun guztiek ere ikasi zuten abestia:

Mehea ta luzea da neska gaztea,
txikia eta arina mutila ordea,
zein ona bi ikuspuntu beti izatea,
biok baldin bagara berdin ta kideak.





Goiz batean, Luze, Txiki eta beren lagun guztiak eskolan zeuden, naturako laborategian.

Basoan hartutako hostoak garbitzen eta bildumarako prestatzen ari ziren.





- Zein hosto handia! -esan zien maisuak harrituta.
- Luzek hartu zuen bordako teilatuaren goikaldetik -esan zion Txikik.
- Eta beste gorri bitxi hau?
- Hori Txikik aurkitu zuen enbor ustel baten barruan -erantzun zion Luzek.

Atea zabaldu eta eskolako atezaina sartu zen gelan. Maisuari ohar bat eman zion eta alde egin zuen.




Maisuak orduan horrela esan zien guztiei:

- Idazkaritzara joan behar dut arazotxo bat konpontzera. Jarraitu ezazue hosto bilduma prestatzen.

Mahai gainekoekin bukatzen duzuenean, atera itzazue beste poltsan gorde gedituenak. Prozedura berbera jarraitu.

Segituan etorriko naiz. Atea zabalik utziko dut.



Irakaslea joan zenean, denek lanean jarraitu zuten. Mahaiko hostoak bilduman jarri zituztenean, beste poltsa hartu zuten.

Hostoak atera eta hezeak, bustita zeudela ikusi zuten.

- Horrela ezin dira bilduman jarri -esan zuen batek.

- Berogailuaren aurrean jarriko ditut. Segituan lehortuko dira -esan zuen beste batek.







Esan eta egin. Bazterrean zegoen berogailu-aren aurrean jarri zituen eta lanera bueltatu zen.

Bapatean, norbaitek leihoa zabaldu zuen pasilloan. Laborategiko lehioa ere zabalik zegoenez haize-lasterra bortitza egin zen.


Paperak eta hostoak aireratu zituen.

DANBA! Atea itxi egin zen.






Eta lehortzen zeuden hostoak berogailura
erori ziren.



SUA!

SUA

SUA!



- SUA! -ohikatu zuen batek.
- SUA! -errepikatu zuten askok.
- Denok atera! -esan zuen Luzek-. Korrika egin gabe baina azkar!

Baina atea ez zen zabaltzen. Eta sua zabaltzen ari zen berogailuaren bazterrean.

- Ate gaineko leihoa zabalik dago -esan zuen batek.

- Baina oso altu dago -esan zuen bigarren batek.





- Baina ez Luzerentzat -erantzun zuen Txikik-. Zatoz Luze!
- Baina leihoa oso txikia da berarentzat -esan zuen hirugarrenen batek.
- Baina ez Txikirentzat -erantzun zuen Luzek-. Zatoz, Txiki!

Esan eta egin. Luze makurtu egin zen eta Txiki bere lepo gainean zutik jarri zen.

- Lagundu denok! -esan zuen Luzek tente jartzeko ahalegina egiten zuen bitartean.


Guztien artean giza-dorrea egin eta Txiki goraino jaso zuten.

- Luze, egia da, hemen goian bero gehiago egiten du!

- Noski! Sua, beroa eta kea goruntz doazelako!


Pasa zaitetz azkar beste aldera -erantzun zion Luzek.






Esan eta egin. Txiki leihotik beste aldera pasa zen. Goitik zintzilikatu eta salto egin zuen. Berehala atea zabaldu zien guztiei.

- Zoaz azkar idazkaritzara eta maisuari gertatu dena esaiozu -esan zion Luzek Txikiri.



- Gu berriz, azkar! Ilara egin eta, hormaren ondotik, kanpora! Azkenak atea itxi dezala berriro!
- Nik pasilloko beste irakasleei esango diet -esan zuen batek.







Esan eta egin. Zuzendariak sirena jo zuen eta
suhiltzaileei deitu zien.

Beste guztiak ere jolaslekura atera ziren ilara-
ka. Horrelako aproba saioetan egiten zuten
bezala egin zuten denek, neskek eta mutilek,
txikiek eta haundiek, ikasleek eta irakasleek,
sukaldariek eta idazkariek, guzti-guztiek.





Suhiltzaileak segituan etorri ziren. Denak kanpoan zeudela ikusi zutenean, barrura sartu eta sua berehala itzali zuten.



Ondoren suhiltzaile buruak, Urmendi
andereak, horrela esan zien:

- Zorionak, neska-mutilak! Oso ondo egin
duzue. Horri esker ez da ezer gertatu. Arrisku
handia zegoen baina zuei esker, dena kon-
trolpean dago jadanik.

Txalo handi bat merezi duzue.

Eta txaloka hasi zen.

Eta gero beste suhiltzaileak.
Eta irakasleak. Eta sukaldariak. Eta zuzendaria.
Eta idazkariak. Eta ikasleak. Denak pozik eta
irribarrez.






Egun hartan ez zen beste konturik eskolan, auzoan, herrian eta Berdinland osoan.

- Eskerrak Luzeri -esaten zuten bajuek.
- Eskerrak Txikiri -esaten zuten altuek.
- Eskerrak neskari -esaten zuten mutilek.
- Eskerrak mutilari -esaten zuten neskek.

Herriko telebistakoak ere joan ziren eskolara.
Neska-mutilei galdetu zietenean, ba al da-
kizue zer erantzun zieten?



Ba, denek, batera, neskek eta mutilek, altuek eta bajuek, hau kantatu zuten:

Mehea ta luzea da neska gaztea,
txikia eta arina mutila ordea,
zein ona bi ikuspuntu beti izatea,
biok baldin bagara berdin ta kideak.

